

Irungo EAJ-PNV

Zure hirian zer gertatzen den ezagutuz

Irion



EAJ-PNV Irungo Udal Taldearen buletina 2014-01-31

Berri nabarmenak



EAJ-PNV Hendaiaiko pasabide berriaren inaugurazioan

Joan den urtarrilaren 20an Hendaiaiko pasabide berria inauguratu zen ofizialki, nahiz eta aste batzuk lehenagotik eskualdeko bizilagunek bertatik ibiltzeko aukera izan. Eguraldia lagun izan ez bazuten ere, goizeko 11:00etan eman zitzaion hasiera Hendaiaiko alkatea buru zuen ekitaldiari. Hendaiaiko Udaletxeko ordezkari ez gainera, Irun eta Hondarribiko Udal ordezkariak izan ziren, besteak beste, Xabier Iridoy jeltzalea.

Joan den urteko abuztuan hasi ziren egurrezko zubi hau egiteko obrak eta abendurako amaitua zegoen 880 metroko pasabidea (Hendaiaiko trenbide geltokiko eremutik Joncaux-Intzura auzoraino), mugako zubien azpitik igaroz. Proiektuak 2,5 milioi euroko kostea izan du eta %65a Europako diru-laguntzei esker finantzatu da.

Pasabide ikusgarria da, Txingudiko badiaz eta ingurune lasai eta erakargarriaz gozatzeko aukera paregabea eskaintzen duena. Inauguratu berri den pasabidearen harira, Xabier Iridoyk gogora ekarri du EAJ-PNVk Txingudiko Badiako hiru eskualdeak lotzeko apustua egin duela eta horretan lanean ari direla, Hendaia, Irun eta Hondarribia lotuko dituen pasabidea errealitate bilakatu dadin.



Irungo EAJ-PNVk antolatuta, hitzaldia eskainiko du Juan Maria Aburtok Batzokian

Irungo EAJ-PNVk hitzaldia antolatu du datorren otsailaren 6rako Juan Maria Aburto Eusko Jaurlaritzako Etxabizitza, Enplegu eta Gizarte Politikoetako sailburuarekin. Hitzaldia Irungo Batzokiko Batzar Aretoan (kale Nagusia, 11) izango da arratsaldeko 19:30etatik aurrera. Bertan etxebizitzaren, enpleguaren eta gizarte zerbitzuen egoera orokorrari buruz hitz egingo du Aburtok.

Hitzaldia irekia izango da bertaratu nahi duen oroientzat.



Xabier Iridoy: "Plaiiaundiko proiektuak aurrera darrai egokiro"

Xabier Iridoy Irungo EAJ-PNV Udal Taldeko bozeramaileak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuak, Ana Oregik, Plaiiaundira egin zuen bisita aprobetxatu zuen Irungo EAJ-PNVk aurkeztutako Plaiiaundiko proiektuak nola aurrera egiten duen eta horren inguruan ematen ari diren urratsak ezagutzeko. «Apustu tinko, serio eta landua da, Eusko Jaurlaritzaren babesa duena, eta Txingudi badiako hiru eskualdeak lotzeko urte honetarako 500.000 euroko partida duena» azaldu du Iridoyk. Bozeramaile jeltzaleak gogora ekarri du proiektu honek Irungo eta eskualdeko oinezkoentzako eta bizikletentzako mugikortasunean aurrerapauso handia ekarriko duela eta hiriko auzoen arteko lotura ahalbidetuko duelako. Horregatik, Ingurumen eta Lurralde Politikako departamentuarekin hainbat bilera egin ostean,

Eusko Jaurlaritzak bere egin zuen EAJ-PNV Udal Taldeak Plaiaunditik Irun eta Hondarribia lotzeko −parke ekologikoa errespetatuz beti ere−; aurkeztutako proposamena.

Sailburuak bozeramaile jeltzaleari atzo adierazitakoaren arabera, bere departamentua diagnostiko bat burutzen ari da, eta proiektuak egokiro darrai aurrera. Halaber, Irun eta Hondarribiaren arteko oinezkoentzako eta bizikletentzako lotura gunearen etorkizuneko diseinua administrazioekin eta eragile sozialekin adostearen garrantzia azpimarratu nahi izan zuen Oregik.

Bestalde, eremuaren erabateko leheneratzerako bide-orria ezartzearen beharra azaldu zuen Oregik, eta bertan kontserbazio eta errekupeazio esku-hartzeak egiten jarraitzeko konpromisoa hartu zuen. Era berean, urte honetan zehar, Ingurumen eta Lurralde Politika sailak plan zuzentzaile baten bitartez, eremuak behar dituen esku-hartzearen lehentasunak definitu eta eragile publikoekin esku-hartze horien banaketa eta gauzatzea adostuko ditu.

Azkenik, Hendaia ahaztu gabe, Irungo eta Hondarribiko birika natural eta aisialdirako gune bezala Plaiaundik duen garrantzia berretsi du Oregik, eta eremuaren berreskurapenerako Eusko Jaurlaritzak esku-hartzeak egiten jarraituko duela baieztatu du.



Xabier Iridoy: «Urdanibia plazako obrak aprobetxatu behar dira Alde Zaharraren suspertze ekonomiko eta soziala lortzeko»

Irungo EAJ-PNV Udal Taldeak bere poza adierazi nahi izan du Urdanibia plazako berrurbanizazio obrak hasi direlako. Xabier Iridoy bozeramaile jeltzaleak aipatutakoaren arabera, «irundarrek gogoz espero genuen obra da. Aspalditik itxoiten ari ginen eta beharrezkoa zen esku-hartzea da; izan ere, Urdanibia plaza Irungo Alde Zaharreko gune garrantzitsuenetako bat da eta egoera dekadentean aurkitzen zen».

Datozen hamalau hilabeteetan, batez ere, bizilagun eta merkatariei eragingo dizkien trabak kontuan izanik, esku-hartze honek ekarriko duen aparkaleku arazoari irtenbidea bilatzen joateko beharra azpimarratu du zinegotzi abertzaleak. «Laurogei aparkaleku kendu dira, eta udal gobernuak hilabeteen berrogei euro ordainduta San Juango lurrazpiko aparkalekua erabiltzeko aukera emanez bizilagunei behin behineko irtenbidea eskaini dien arren, behin obrak amaitutakoan planteatu dezakegun alternatiba pentsatu behar dugu» azaldu du Iridoyk.

Hori dela eta, eragina izango duen bizilagunentzat, egoiliarrentzat aparkaleku gune zuriak ezartzea proposatzen du talde jeltzaleak. Iridoyk adierazi du «joan den uztailleko Udalbatzan, TAOa gune berrietara zabaltzea onartu zenean, arazo honi irtenbidea emateko, Urdanibia plazaren inguruan egoiliarrentzat beharrezkoa izango zen aparkaleku kopurua ezartzeko aukera azter zezan eskatu zion EAJ-PNV udal taldeak gobernuari».

Halaber, hiriko Alde Zaharra ekonomikoki eta sozialki suspertzeko beharra azpimarratu du Iridoyk. «Urdanibia plaza eraberritua aukera ona izango da Irungo gune enblematiko hori bultzatzeko» adierazi du. Joan den ekaineko Mugikortasun Mahaian, jada, EAJ-PNVk mahaigaineratu zuen Larretxipi kalearen bitartez, Urdanibia plaza Gain Gaineanekeko oinezkoen ardatz berriarekin lotzeko proposamena. Horretarako, «Hiri Mugikortasunerako Plan Jasangarrian Larretxipi kalea Oinezkoentzat Ibilbide Nagusi bezala aintzat hartu beharko litzatekeela uste dugu» jarraitu du bozeramaile abertzaleak. «Horren harira, Larretxipi kalea oinezkoak ibiliko diren kalea bilakatzen bada, Alde Zaharra suspertzen lagunduko du ikuspuntu sozial eta ekonomikotik. Planteamendu honek K-Biziak inguru horretara iristea indartuko duela deritzogu» baietsi du Iridoyk.

Azkenik, Jesus kalean eraikiko den igogailuak Alde Zaharraren eta San Juan plazaren artean dagoen aldearen ondoriozko haustura puntua konponduko duela, eta Urdanibia plazaren eta Gain Gaineanekeko parkearen arteko lotura erraztuko duela nabarmendu du EAJ-PNVko bozeramaileak. «Horrek guztiak, mugikortasunean eta Larreaundi, Elitxu, San Juan plaza eta Alde Zaharraren arteko irisgarritasunean hobekuntza ekarriko du» amaitu du.

Buletin honetan ere...



Iridoy: «Pintor Berroetako aparkalekua handitzeak eta Zurbaran kalerako irteerak Artiako bizilagunen eguneroko bizitza hobetuko dute»

Xabier Iridoy EAJ-PNV Udal Taldeko bozeramaileak bere poza adierazi du Artiako bizilagunek, azkenean, auzoan hobekuntzak ikusi ahal izango dituztelako. Zinegotzi jeltzaleak azaldutakoaren arabera, «gure taldeak 2012ko aurrekontuetara aurkeztutako zuzenketetan eskatzen zuen esku-hartzea gauzatu da une honetan. Batetik, Pintor Berroetako aparkalekua handituko da 25 aparkalekutik 49ra pasaz. Eta, bestetik, aparkalekutik irteera bat egingo da Zurbaran kalera».

«Denbora daramagu bizilagunen eguneroko bizitza hobetuko duen obra hau itxuiten» adierazi du Iridoyk. Artia 6.800 bizilagun inguruko auzoa da, hirigintza-ordenazio eta aparkaleku arazo handiak dituena; horregatik, EAJ-PNVk hainbat esku-hartze proposatu zituen −orain hasi duten obra honetaz gain, hiru proposamen: Pio Baroja kaleko zati bat ibilgailuentzat itxia (Portu plazarantz doan zatia); haur parkea Belartzako parkeko eremu altuenera eramatea; eta, gaur egun, Pio Baroja kalean dagoen haur parkean aparkalekua eraikitzea−. Aparkalekua handitzearekin, modu batean, auzoan dagoen aparkaleku-arazoari konponbidea ematea bilatzen da, eta Zurbaran kalerako irteerarekin Artiako gunen altuan beharrezkoa ez den trafikoa sortzea ekidingo da.

2012ko aurrekontuetarako EAJ-PNV Udal Taldeak Artia auzorako hainbat hobekuntza proposatu zituela gogora ekarri du Iridoyk. «Une horretan gure proposamena ez zuen onartu Santano alkateak eta bere gobernuak» azaldu du. Guztiz kontrakoa baizik; 50.000 euroko partida bideratzea erabaki zuten parte-hartze prozesu bat abian jartzeko helburuarekin −prozesu horretan 10.500 euro gastatu zirelarik−. «Egindako parte-hartze prozesuak erakutsi zuen proposamen jeltzaleak bizilagunen beharrei erantzuten ziola» jarraitu du bozeramaile abertzaleak. «Hori dela eta, kontsulta egin ondoren, gobernu sozialistak 2013ko aurrekontuan Pintor Berroetako aparkalekua berrordenatzeko partida bat onartu zuen» gogorarazi du Xabier Iridoyk.

Hala ere, Santanoren gobernuaren eraginkortasun eza eta EAJ-PNVren proposamena onartzen amaitzeko, bidean xahututako diru eta denbora deitoratu ditu bozeramaile jeltzaleak. «Bi urte daramatzagu gai honekin bueltaka gure proposamenak Artiako bizilagunen beharrei erantzuten ziola ondorioztatzeko. Beharrezkoa ez zen dirua gastatu da bidean parte-hartze prozesua burutzeko kanpoko enpresa bat kontratatuz. Eta, gainera, Santanoren gobernuaren eraginkortasun eza agerian geratu da 2013ko otsailean onartutako aurrekontuan jasotako konpromisoa 2014 urte hasiera arte gauzatzeko gai izan ez direlako» deitoratu du Xabier Iridoyk.

Amaitzeko, zinegotzi jeltzaleak azpimarratu du Irungo auzo desberdinetan dauden arazoei irtenbidea bilatze aldera, EAJ-PNVk proposamenak egiten jarraituko duela.



EAJ-PNVk Behobiarako eskatutako markesina jada jarrita dago

Xabier Iridoy EAJ-PNV Udal Taldeko bozeramaileak bere poza adierazi du, azkenean Behobia auzoko Lastaola Postetxea kalean autobus geltokiko markesina jarri dutelako. «Iazko otsailan, 2013ko aurrekontuetarako 16.000€-ko partida onartu zen bi markesina erosi eta jartzeko, eta hamaika hilabete beranduago ikusi dugu markesina jarrita» adierazi du.

«L-1 autobus linea (Ospitalea-Zaisa) erabiltzen duten hiritarrek beharrezkoa zuten geltokia estaltzea, horregatik, behar horri erantzuna emateko, aurkeztu genuen EAJ-PNV Udal Taldetik zuzenketa» adierazi du Iridoyk. Halaber, «garraio publikoaren erabilera sustatu nahi badugu, ezinbestekoa da zerbitzua hobetu dezaketen eskakizunak aintzat hartzea» gaineratu du.

2013ko aurrekontuetarako EAJ-PNV Udal Taldeak hiru autobus markesina eskatu zituen zuzenketa desberdinetan. Bat, Behobia auzoko Lastaola Postetxea kalerako, eta beste biak, Ventas auzoko Bizkaia eta Andrearriaga kaleetarako. Azkenean, bi markesina jartzeko partida onartu zen.



Ana Oregi: "Txinbadia 2014/2015 proiektuak milioi bat euro baino gehiago bideratuko ditu Txingudiko padurak leheneratzera"

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburu Ana Oregik joan den urtarrilaren 30ean Plaiaundira egindako bisitan adierazi zuenez, "Txinbadia 2014/2015 proiektuak 1.078.869 euroko aurrekontua izango du Txingudiko padurak dinamizatzeko eta leheneratzeko jardueretarako". Oregik Plaiaundiko Ekoetxearen jardunaldi tekniko batean hartu zuen parte, asteburu honetan ospatuko den Hezeguneen Nazioarteko Egunaren harira, eta leheneratzen ari diren anfiboentzako urmaelak eta uhalde-enara eta martin arrantzaleentzako oinak eta kutxatilik bisitatu zituen.

"Txinbadiak Hendaiaren parte-hartzea du, eta etorkizunerako plangintza eta lan-ildoak jorratuko ditu naturgunean eskumen zuzenak dituzten eragileekin", esan zuen Oregik. Gainera, nabarmendu egin zituen "Eusko Jaurlaritzaren RAMSAR eta Natura 2000 Sarea izendapena duten Euskadiko hezeguneetako bi leheneratzeko egiten ari den apustua, Oka ibaiaren goi estuarioan, Urdaibai biosfera-erreserban, eta Txingudiko badian egindako leheneratze-jarduerak".

Halaber, Eusko Jaurlaritzaren RAMSAR eta Natura 2000 Sarea izendapena duten Euskadiko hezeguneak leheneratzeko egiten ari den ahalegina azpimarratu zuen. Urdaibai biosfera-erreserban dagoen Oka ibaiaren goi-estuarioa leheneratzea eta Txingudiko badian egindako leheneratze-ekintza, hain zuzen ere.



"Giza Eskubideak. Konponbidea. Bakea"

Joan den urtarrilaren 11n, Bilbon "Giza eskubideak. Konponbidea. Bakea" lemapean burutu zen manifestazioan milaka eta milaka pertsonen hartu zuten parte, eta tartean Irungo EAJ-PNVko ordezkariak izan ziren.

Joseba Egibar Gipuzkoako EAJ-PNVko presidentek adierazitakoaren arabera, «alderdi jeltzaleak manifestazio ixila deitu zuen erantzukizunez jokatu duelako», eta gainera, «ETAk armak utzi ostean, garai berri honetan "Bakea eta Bizikidetzaren" sendotu behar direlako». Bere esanetan, urtarrilaren 8ko atxiloketen ondoren, jendeak «herri erantzun bat» eskatu zuen; oinarrizko giza eskubideak urratu zirela adierazi zuen eta horren aurrean, iritziak emateaz gainera, gizarteari bidea erakutsi behar diotela. «Beste bide bat nahi dugula esan behar diegu berriaz Auzitegi Nazionalari eta PPri»

«Audientzia Nazionalari eta PPri horrela ez ekiditeko esateko deitu dugu manifestazioa. Herri honetan zabaltzen ari garen garai berri honetan jarduera ezberdina egin behar dute. Beraz, manifestazioan mezu guzti hauek inplizitoki zabalduko ditugu Bilbon», adierazi zuen buruzagi jeltzaleak.

«Bakea eta Bizikidetzaren sendotu behar dira eta ez dakit zenbat manifestazio deitu beharko ditugun, baina egoera larria zen eta egoerari Stop esan nahi izan diegu. Bakoitzak bere etxekolanak egin beharko ditu, baina adostasunak lortzea beharrezkoa da», amaitu zuen Egibarrek.

Ba al zenekien...

Urtarrileko Udalbatza: mozio asko, baina Irunekin zerikusia duten gai gutxi

Urtarrileko Osoko Bilkuran hamaika puntu jorratu ziren, horietatik bost talde politikoetatik aurkeztutako mozioak. Ongi dago mozioak eztabaidatzea, baina kasu honetan batek bakarra zuen gure hiriarekin zerikusia, hain zuren ere, Katea auzoko aldiriko trenen geltokiari buruzkoak. Gainerakoak abortoari eta Eliza Katolikoarenak eta bestelako erlijio-konfesioenak diren ondasunei IBI zerga kobratzeari buruzkoak.

Gure eskumenekoak ez diren gaietan eztabaidatzen denbora pasa beharrean, hobe genuke Irunekin lotutako gaiak konpontzen eta eztabaidatzen egotea.
